

## **ZARAUTZ / Irakurketa saioetan izena eman daiteke oraindik**

ZARAUTZ. Zarauzko Sanz Enea kultur etxeko haur liburutegiak, Irakurketa Kluba izena duten saioak antolatu ditu aurtengoan ere. Hi-tzordu hauek 6 eta 7 urteko hurrei eta beraien gurasoei zuzenduta daude eta arratsaldeak modu dibertigarrian igarotzea dute helburu. Saiotara joateko plazak ordea, mugatuak dira eta 20 hurrek eta euren gurasoek izango dute aukera parte har-tzeko. Izena emateko epea itxi bada ere, oraindik lekua badagoela jakinarazi dute antolatzaileek.

Irakurketa saioak burutzeko hiru hitzordu jarri dituzte 2010erako: bihar, otsailak 19 eta martxoak 12. Galtzagorri elkarteko kideek eskainiko dituzte saio guztiak, ostiraletan, 17.30ean hasita. Ekimenean parte hartu nahi dutenek Sanz Enea haur liburutegira gerturatu beharko dira apuntatzeko.

Galtzagorri elkartea 1990ean sortu zen eta bi helburu nagusi ditu: haur eta gazteen irakurzaletasuna bultzatzea eta euskarazko haur eta gazte literatura sustatu eta ezagutaraztea. Ekimen hau, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko dirulaguntzari esker egingo da.